


Profilak (Mugetan barrena)



Amaia Iturbide

Bilduma: Poesia, 51

Formatua: 130 x 205 mm

Orrialdeak: 112

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2025-03-08

ISBN-a: 978-84-9109-988-8

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

14,00 €



«Profil» hitz polisemikoa albotik ikusitako gorputzaz edota pertsona zein pertsonaia baten ezaugarriez aritzeaz gain, arte, teknologia eta geometriari, gizarte zein hizkuntza gaiei lotuta dago. «Muga» hitzari dagokionez, poema liburu honetan denetarik mugak (mugarriak, mugaldeak, zerumugak, lerroak) eta mugako egoerak agertzen dira. Bestaldetik, muga kontzeptu filosofiko konplexu horietariko bat dugu, artea ulertzeko ezinbestekoa.

Ezpatatik tenplatutako altzairuzko ametsa ateratzen da
emaro-emaro,
gezitik, bizitzaren soldadu izan nahi duen giza irudia,
maskaratik, zutargi gisara biderkatutako
gazteluko zaindaria,
ezkututik, trostan dabilen bihotza,
aiztotik, ezpain erabakiorra.

Eta eguneroko zurezko koilaratik, ahoari egokitutako
metal zaporeko bakardadea.

Amaia Iturbide



Amaia Iturbide (Bilbo, 1961). Poema liburu hauek argitaratu ditu: *Eskaileraren bi aldeetan*, *Itzulbidea*, *Gelak eta zelaia*, *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak* / *Flores mudas y las bodas de la saliva*, *Labirintoaren orduak*, *Eszenatokietako aztarnak hasten direnean*, *Dorrearen eta penduluaren arteko ituna* eta *Isiltasunaren ildoetan*. Ipuin liburuak ere idatzi ditu: *Bidaierik luzeenak*, *Kartografien eta mikrobio narratiboen artean* eta *Urrutiko estanpetan*; baita narrazio bat, poemak eta margoak biltzen dituen liburu ere: *Ispiluen arteko zirriborroak*.

Horretaz gain, saiakera hauek argitaratuta dauzka: *B. Gandiaga*, *J.A. Artze* eta *X. Leteren poemagintza*, «*Mimodramak eta ikonoak*» gidari, estetikan barrena, *Ikuspuntuak* (artikulu bilduma), *Entseiarrean: artea & poesia & literatura*, *Idazlan berreskuratuak*, *Guneak eta ardatzak*, *Lekuetatik mezueta* eta *Lokarriz*.